

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Laguntza deialdia berokuntzan erabilitako energia gasturako

Udalbatza honek, 2026ko ekainaren 10ean balio osoz egindako osoko bilkuran, berokuntzan erabilitako energia gasturako dirulaguntzak emateko deialdia eta horren oinarri arauak onetsi zituen. Horren gainean hartutako hirugarren erabakia betez, oinarri horiek ALHAOn argitaratzen dira, objektibotasun, lehia eta publizitate printzipioak bermatzeko.

Gaubea, 2026ko abuztuaren 3a

Alkate-lehendakaria
GORKA SALAZAR SENSO

Berariazko ordenantza berokuntzan erabilitako energia gasturako dirulaguntzak emateko oinarriak arautzeko

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da Gaubeako udalerrian etxebizitzaren errendimendu termikoan laguntzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzea.

2. artikulua. Araubide juridikoa

Ordenantza honek xede dituen dirulaguntzak bertan xedatutakoak ez ezik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta 887/2006 Errege Dekretuaren bidez hura garatzeko onartutako araudiak ere arautuko dituzte.

Horrez gainera, zuzenbide administratiboko gainerako legeak aplikatuko dira.

3. artikulua. Onuradunak

Onuradun izan daitezke Gaubeako udalerrian erroldatutako pertsona fisikoak.

Ondasun higiezinak jabe bakarra izanez gero, ordenantza honen I. eranskinean adierazitako zenbatekotik beherako urteko diru sarrera gordinak dituela frogatu beharko du.

Ondasun higiezinak zenbait jabe izanez gero, guztira, ordenantza honen I. eranskinean adierazitako zenbatekotik beherako urteko diru sarrera gordinak dituztela frogatu beharko dute.

Eskatzaileek zerga betebeharrak egunean izan behar dituzte eskaera egiteko unean.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen jarduketak eta eraikinaren baldintzak

Dirulaguntza hauen araubidea Gaubeako udalerrian dauden etxebizitzei baino ez zaie aplikatuko. Etxebizitza horiek edozein motatako berokuntza sistema izan dezakete: ikatza, egurra, pelleta, gasa, gasolioa, elektrizitatea...

5. artikulua. Baldintzak eta dirulaguntzen gehieneko mugak

Etxebizitza bakoitzeko gehieneko dirulaguntza 150,00 eurokoa izango da, erroldatuta dagoen etxebizitza bakoitzeko.

Eskatzaileen arteko norgehiagoka bidez emango dira dirulaguntzak.

6. artikulua. Zenbatekoa eta esleitzeko irizpideak

Emandako dirulaguntzen guztizko zenbatekoak ezingo du gainditu Gaubeako Udalaren urteko aurrekontuaren 425 480000 partidan esleitutako kopurua.

Hartzaile guztiei eman beharreko guztizko zenbatekoa indarrean dagoen udal aurrekontuaren aurrekontu aplikazioan esleitutako gehieneko kopurua baino handiagoa bada, haietako bakoitzari zenbateko osoaren gainean dagokion ehunekoaren arabera kalkulatu da bakoitzari emango zaion behin betiko kopurua.

7. artikulua. Dirulaguntzak eskatzea

Eskaerak aurkeztea:

Dirulaguntza eskatzeko epea urte bakoitzeko abenduaren 30era bitartekoa izango da.

Ordenantza honetan zehaztutako dirulaguntzak eskuratu ahal izateko dokumentazioa aurkezteak oinarri hauetan ezarritakoa berariaz eta formalki onartzea dakar.

Aurkeztu beharreko agiriak:

— Eskaera, eredu ofizialean, behar bezala beteta eta sinatuta. Eskaera eredu II. eranskin gisa erantsi da.

— Gastua frogatzen duten fakturak, jatorrizkoak zein kopia konpultsatuak.

— Aurkeztutako fakturen banku ordainagiriak.

— Zerga betebeharrak (Ogasuna eta udal zerga bilketa) eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen ziurtagiriak, eta Gaubeako Udalarekin sortutako zorreatatik premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta ez egotearena.

— Eskatzailearen eta haren bizikideen errenta aitorpena.

8. artikulua. Antolamendua eta instrukzioa

Ebazteko organo eskuduna alkatea izango da, informazio batzordeak aldeko irizpena eman ondoren.

Eskaerak aztertu ondoren, aurkeztutako eskaerei buruzko txostena egingo du informazio batzordeak.

Espedientea eta kide anitzeko organoak egindako txostena aztertutakoan, instrukzio organoak behin betiko ebazpena emango du, eta honako hauek adierazi beharko ditu: zer eskatzaileri eman behar zaien dirulaguntza, dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa, ebazpenerako egin den ebaluazioa eta horretarako erabili diren irizpideak.

9. artikulua. Dirulaguntza emateko ebazpena

Alkateak ebazpen arrazoitu bidez ebatziko du dirulaguntzak ematea.

Ebazpen arrazoituan, gutxienez, dirulaguntza jasoko duen eskatzailearen edo eskatzaileen zerrenda jaso beharko da, bai eta gainerako eskabideen ezestea ere, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta bi hilabeteko epean.

10. artikulua. Justifikatzea eta ordaintzea

Alkateak ebazpena emandakoan, gehienez ere hilabeteko epean ordainduko zaie onuradunei.

11. artikulua. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Laguntza hauez gain, beste laguntza edo dirulaguntza batzuk ere eskura daitezke.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste laguntza, dirulaguntza edo baliabide batzuekin batera, ezin daiteke inoiz izan diruz lagundutako jardueraren guztizko kostuaren ehuneko 100 baino handiagoa.

Onuradunak helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabiderik lortzen badu, horren berri eman beharko dio dirulaguntza ematen duen organoari.

12. artikulua. Itzulketa eta arau haustea eta zehapenak

Ordenantza honetan araututako dirulaguntzak, itzultzearen arloan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 36. 43. artikuluetan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko haien korrelatiboetan -91. artikulutik 101. artikulura- xedatutakoak arautuko ditu.

Arau hausteei dagokienez, lege horren 52. 69. artikuluetan eta araudiaren 102. eta 103. artikuluetan xedatutakoa hartuko da kontuan.

13. artikulua. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, informazio batzordeak aurrez txostena eginda.

I. Eranskina

URTEKO DIRU SARRERA GORDINEN MUGA	
Familia unitateak kide bakarra badu	18.000,00 euro
Familia unitateak zenbait kide baditu	26.000,00 euro

II. eranskina

Berokuntzarako energia gasturako dirulaguntza eskaera etxebizitzako

IZEN-ABIZENAK	AGIRI ZK.	TELEFONOA	E-MAILA
HELBIDEA	PK	HERRIA	PROBINTZIA
NORBERAREN IZENEAN EDO HONAKO HONEN ORDEZKARITZAN			AGIRI ZK.
BANKU HELBIDERATZEA			
IBANa	ERAKUNDEA	BULEGOA	KD KONTU ZK.:

Honako helbide honetan dagoen etxebizitzako berokuntzaren gastuak ordaintzeko dirulaguntza eskatzen du:

--

Hauek erantsi dira (markatu X batez dagokiona):

☐	Fakturak
☐	Banku ordainagiria
☐	Eskatzailearen eta haren bizikideen aurreko urteko errenta aitorenaren kopia
☐	Beste batzuk (zehaztu):

Eskatzaileak hau adierazten du, bere erantzukizunpean: (markatu X batez dagokiona):

☐	Etxebizitzako berokuntzarako dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen udal ordenantzan ezarritako irizpideak ezagutu, onartu eta betetzen dituela
☐	Egunean dagoela zerga betebeharren ordainketan eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzarekiko betebeharretan eta Dirulaguntzen Lege Orokorren 13.2 artikulutik eratorritako gainerako inguruabarretan

Baimena ematen dio Gaubeako udalari lehiatzearen ondoriozko posta elektroniko bidezko jakinarazpen ofizialak bidaltzeko, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. eta 41. artikuluen arabera, baita udalaren biztanle eroldan dauden datuak kontsultatzeko ere.

Data eta sinadura: